



## Estereokimika


1.-  $C_4H_{10}O$  formula enpirikoarekin zazpi isomero konstituzional desberdin aurki daitezke. Isomero hauen egiturak idatzi.

2.- Ondorengo ezaugarriak betetzen dituzten egiturak proposatu.

- $C_5H_{10}O_2$  formula enpirikoa duten bi ester.
- $C_4H_7N$  formula enpirikoa duten bi nitrilo
- $C_4H_8$  formula enpirikoa duten bi olefina (alkeno) azikliko.





3.- Ondorengo molekulak perspektiban eta Fischer proiektzioaren bidez marraztu a) (S)-1-bromo-1-kloroetanoa. b) (S)-2-iodobutanoa. c) (R)-4-kloro-2-metiloktanoa

4.- Ondorengo irudian azido 2-hidroxipropanoikoa (azido laktikoa) bi eratan irudikatzen da:




a) **1**. molekularen Fischer proiektzioa marraztu. b) **1** eta **2** isomero berberaren irudikapenak direna la ez adierazi. c) **1** molekularen konfigurazio absolutua eman. (R ala S)


5.- Ondorengok konposatueta dauden zentro estereogenikoak adierazi. Dagokion bi enantiomeroak marraztu.

- |                             |  |   |
|-----------------------------|--|---|
| a) $CH_3CH_2CH_2Br$         | d)  | g)  |
| b) $CH_3CH(OH)CH_2Cl$       | e) $CH_3CH(Br)CH_2CH_2CH_3$  | h)  |
| c) $CH_3CH_2CH(CH_3)CH_2Cl$ | f)  |   |


6.- Ondorengo konposatuak D ala L seriearen barruan sailkatu.




7.- Ondorengo irudian molekula berberaren irudikapen desberdinak agertzen dira. Irudikapen guztien arteko isomeria-erlazioak adierazi.



8.- Ondorengo irudietan falta diren ordezkatzailak era egokian kokatu ematen den konfigurazio absolutua lortzeko.



9.- Bikote hauen isomeria-erlazioa adierazi eta molekula guztien konfigurazio absolutua eman.



10.- Ondorengo konposatuak Newman eta Fischer proiektzioen bidez marraztu:


a) (2R,3S)-2,3-butanodiola

b) (2S,3R)-3-amino-2-butanola


c) *meso*-1,4-dibromo-2,3-dimetilbutanoa

d) *treo*-3-kloro-4-bromo-1,5-hexadienoa

11.- Irudian agertzen diren konposatuen eta azido (3R,4S)- 3,4-dibromopentanoikoaren arteko isomeria-erlazioa adierazi



12.- Ondorengo konposatuen konfigurazio absolutuak eman: halaber kauetako konposatuetatik zeintzuk diren kiralak eta zeintzuk erakutsiko duten aktibitate optikoa esan



13.- Ondorengo irudikapenen arteko isomeria-erlazioa adierazi.

